



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Ostirala  
2008-01-25**

VIURTEA 1.345.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

**JOSE RAMON EIZMENDI** REALEKO ENTRENATZAILEA

## «Bilobei kontatzeko moduko ametsa da niretzat Realari entrenatzea»

**IKAZTEGIETA** Denboraldia amaitu artean ikaztegiatarra izango da Realeko lehen taldeko entrenatzailea

**HELBURUA** «Amets hau ondo amaitzeko orain lan egin beharra dago, Lehen Mailara igo ahal izateko» 3



Ezker-eskuin: Andoni Iturzaeta, Jokin Bildarratz eta Jokin Monfort. I. TERRADILLOS

## FESTARIK EDERRENEAN ATARIAN, GUZTIA PREST

**TOLOSA** Udalak aurtengo Inauterietako egitaraua aurkeztu du, «herreraren parte-hartzea» eskertuz; «aldaketa gutxi» egin dituzte 2

## Eneko Galarraga Godoi atxilotu du Frantziako poliziak

**VILLABONA** Urruñako etxean atxilotu zuten atzo; gaur Pau-eko epaitegira eramango dute 6

## Zikloturista Taldekoek «EHNA egitera» deitu dituzte herritarrek

**IBARRA** Euskal nortasuna praktikan jartzeko modu gisa aldarrikatu dute EHNaren erabilera 6

**OINATZ BENGOETXEA** PILOTARIA

«Hasieratik denek indartsu emango diogu pilotari» 7

# Egitarauan aldaketa gutxi, «baina Inauteriak beti bezala berritzaile»

**Inauteriak** » Herritarren parte-hartzea eskertu dute Udalekoek, «bestela ez lirakeelako egun direnak izango».

## INIGO TERRADILLOS

«Urteko festarik ederrenean sartu gara, eta norberarekiko eta besteenganako errespetua mantenduz eta festak dituen osagaiekin Inauteri zoragarriak irtengo dira». Horixe azaldu zuen atzo Jokin Bildarratz Tolosako alkateak Inauterien aurkezpenean. Urtero bezala, aldaketa gutxi izango ditu urteko festarik eroenak, baina, Andoni Iturzaeta kultur zinegotziak adierazi zuenez, «Inauteriak urtero dira berriak».

Aurtengo Inauterietako lehen aldaketa Tolosako Udalak etxez etxe banatzen duen egitarauaren liburuxkan dator. «Formato aldatu dugu erakargarriagoa egiteko; saiatu gara formato berri bat egiten ohiko Inauterientzako», azaldu zuen Tolosako alkateak.

Inauterietako kartela, ohiko moduan, Tomas Hernandezen eskutik dator. «Askok esan izan dute lehiaketa egin beharko litzatekeela kartela definitzeko, baina nire ustez Tomas Hernandezek musu-truk urtero kartela egitea harro egoteko modukoa da», adierazi zuen kultur zinegotziak.

## Diru laguntza gehiago

Halaber, Udalak Inauterietako aurrekontuarekin egin duen esfortzua azpimarratu nahi izan zuten, eta baita «talde desberdinekin izandako elkarlana». Aurrekontuen baitan, aurtengo %10 igotzeko karteei emandako diru laguntza, baina hori baldintza bat bete dezate eskatuz egin du Udalak: «Igoera horrek zuzenean izan behar du islada musikariengan». Iturzaetak azaldu bezala, «2003an 1.200 euro inguru jasotzen zuten txaranga ofizial bakoitzak, eta aurtengo, 2.100 inguru izango da jasoko dutena, beraz, 4 urtetan ia bikoiztu egin dira laguntzak». Guztira, ofizialen eta ez ofizialen artean 22 txaranga



Atzoko aurkezpenean, Jokin Bildarratz eta Andoni Iturzaeta. i.t.

ariko dira kaleko giroa alaituz, eta bakoitzean 25-30 musikarik hartuko dute parte, guztien artean 35 irtenaldi egingo dituztelarik.

## Karrozak gordetzeko lekua

Karrozei eta konpartsei dagokionez, parte-hartzaile guztiei diru laguntza emateko «esfortzu berezia» egin duela Udalak azaldu zuten. Gaur izango da izena emateko azken eguna, eta dagoeneko 200 talde inguruk eman dute, eta horiez gain, hau da, lehiaketaz kanpo, 6 aisialdi talde ere ariko dira Inauterietan ikuskizuna eskainiz. Karrozak eta konpartsak eraikitzeke erabiltzen gunea Ferialekuazatzen da, eta bertan ari dira azken ukituak ematen.

Hain zuzen ere, karrozak eta konpartsak eztabaidarako gai bilakatu dira azken aldirian, Inauteriak bukatu ostean hurrengo urterako hauek gorde ahal izateko lekuarengatik. Honen inguruan Andoni Iturzaetak baieztatu zuenez, «pentsatuta dugu Inauterietan ostean non gorde ahalko diren. Azken urteetan trenbidearen ondoan dagoen gunean egokitu genuen le-

kua, baina pentsatu ez genuena zen lapurretak eta gertatu zitezkeela han uzteagatik. Horregatik, udaren ostean gaiaren inguruan arituginen hitz egiten karrozen eta konpartsen ordezkariekin, eta azkenean, Ferialekuaren ondoan itxitura bat egokitzea erabaki dugu». Udalak hartuko du bere gain karrozak eta konpartsak gordetzeko gunea egokitzeke obren gastua.

## Zezenetarako txartelak

Bestalde, Inauterietako egitarauan ohikoak diren zezenek ere ez dute hutsik egingo aurtengoa. Ostegun Gizen eta Ostiral Mehe egunean gaztetxoentzako moduko xexentxoak ekarriko dituzte, eta baita zalditxoak ere Ostiral Mehean. Hiru egun nagusietan helburtuagoentzako zezenak izango dira, eta iaz bezala, zezen-plazaren erdian oholta txiki bat jarriko dute babeserako. Plaza Berrian ere izango dira zezenak ohiko sokamuturrean, Zaldunitan, Astelenitan eta Astearritan, 10:30ean.

Sarrerei dagokionez, urtero bezala, aurrez erosi ahalko dira; dato-

ren astelehenean, hilaren 28tik aurrera izango da horretarako aukera, eta aurtengo Leidor aretoko leihatilan egin ahalko da. Asteleheneetik asteazkenean 17:30etik 20:30era izango da leihatila zaballik; Zaldunitan, Astelenitan eta Astearritan, berriz, 11:00etatik 13:00etara erosi ahalko dira zezen-plazako leihatilan. Udaletik aurrez erostea sarrerak gomendatu dute, «emanaldi egunetan ilararik egon ez dadin».

## Hiru musika talde tolosar

### Zaldunita Bezperan

Musika ezinbestekoa izaten da Inauterietan, eta txarangen doinuez eta karrozen eta konpartsen erritimoaz gain, kontzertuak ere izango dira. Lehen kontzertua igande honetan, hilaren 27an izango da Tolosako Musika Banda eta Udal Txistulari Bandarekin, Berdura Plazan, 12:15ean. Otsailaren 2an, Zaldunita Bezperan hiru tolosar talde izango dira plaza Berriko eszenatoki gainean, 23:30etik aurrera: Angelays, Evil Code eta Homo Demens. Zaldunitan eta Astelenitan Trikutxiki diskojaiaren musika izango dute gaztetxoek, Zerkausian, 19:30etik aurrera. Astelenitan, 23:30ean, Trikutjai diskojaiaren musika ere izango da, plaza Berrian.

Barrakei dagokionez, Geltoki plazan egongo dira. «Prezioak jeisteko ahalegina egin dugu, eta beste herrietan baino merkago behintzat izango dira. Guk lurzoruaren eskaini nahi genien, eta trukean prezioak jeisteko eskatu genien, baina ez zuten onartu prezioak jeisteara», azaldu zuen Iturzaetak.

## Txosnagunea

### Euskal Herria plazan

Txosnagunea Euskal Herria plazan jarriko dute, eta iaz bezala talde guztiak karpa handi baten barruan egongo dira. Bertan eszenatoki bat ere egongo da emanaldiak eskaintzeko. «Txosnagunekoek toki finko bat eskatzen dute berriantzat, eta guk esan diegu Inauteriak igaro eta gero Euskal Herria plazako bizilagunekin hitz egingo

dugula ados dauden ala ez jakiteko», adierazi zuen kultur zinegotziak.

## Garraio publiko erabiltzeko gomendioa

Bestalde, pasa den urtean bezala, aurtengo Zerkausian mahaiak jarriko dituzte bertan bazkaldu edo afaldu nahi dutentzat. Iaz, emakumeen danborrada urteurrena zela eta aterabazenean, aurtengo aterako dela ere zehaztu zuten Inauterietako aurkezpenean. Udalekoek nabarmendu nahi izan zuten puntua garraio publiko erabiltzearena izan zen, izan ere «beti bezala Renferen eta TSS-Tren zerbitzu bereziak egongo dira, eta hiribusaren gaueko zerbitzua ere eskainiko dute».

## Jarraipen Batzordea eratzearen beharra

229.216 euroko aurrekontua izan dute aurtengo Inauteriek. Andoni Iturzaetak dioenez, «Jai Batzordea motz geratzen da gero eta jende gehiago erakartzeko duen festa handi bat antolatzen orduan, eta horregatik Jarraipen Batzordea eratu dugu Udaleko arlo desberdinetako ordezkariekin batera, Inauteriak jaiak izanagatik ere aurreratu jarraitu behar direlako».

Eskerrak ere eman nahi izan dituzte Udaleko ordezkariak «Inauteriak antolatzen lagundu duten guztiei, eta horien artean, Jai Batzordeari, elkarrekin eta talde antolatzaileei, Tomas Hernandez Mendizabali, Juan Bautista Aranzaberi eta babesleiei, eta nola ez, parte-hartzaile eta herritar guztiei, hauek gabe ez bailirateke Inauteririk egongo».

## AMAROTZ AUZOKO INAUTERIEK BALKOI LEHIAKETA ABIAN DA


Amarozko Auzo Elkarteak III. Inauterietako Balkoi Lehiaketa antolatuko du. Hala, Amaroitz auzoko bizilagun guztiak animatzen dituzte parte hartzera, auzoari kolorea emanez. Parte hartzeko Amaroitz edota Usabal auzoko herritar izan behar da, eta Ostegun Gizerako apaindu beharko da balkoia; 100 euroko saria jasoko du irabazleak, eta honek aipamen berezia izango du. Epaimahaia Juan Bautista Aranzaberi, Maite Sanchez eta Benito Guillermo Huarte elkarrekin kide batek osatuko dute.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**E Elkarrizketa**

**JOSE RAMON EIZMENDI** › Realeko entrenatzailea

**Ikaztegieta** › Hainbat urteren ostean «bere bizitzako ametsa» betetzen ari da Jose Ramon Eizmendi ikaztegiatarra Realeko lehen taldeko entrenatzaile lanetan.

**INIIGO ASENSIO**

Garai gogorak izaten ari dira Realarentzat. Taldearen azken garai-penekin igoseraren ametsa gertuago ikusten da, baina presidente, zuzendari tekniko eta entrenatzaile dantza etengabea izan da azken urteotan. Inaki Badiola presidenteak, Pako Aiestaranen agurrari erantzun dio, erabaki azkar batean etxeko gizon baten alde apustu eginez. Jose Ramon Eizmendi (Ikaztegieta, 1960) izan da aukeratua Lehen Mailarako bidaia honen gidari izateko.

**Konturatu baino lehen Realeko entrenatzaile bihurtu zinen Chris Coleman galestarren dimisioarekin. Ezustekoan harrapatu al zintuen?**

Neurri batean bai. Ni Sanseko entrenatzailea nintzen. Colemanen dimisioarekin Karla (Karla Larburu, prestatzaile fisikoa) eta Mantxi (Inigo Manzisidor, atezainen prestatzailea) arduratu ziren taldea entrenatzeaz. Kordobako partidarako taldea zuzen nezan eskatu zidaten eta onartu egin nuen; ni Realeko langilea naiz eta segituan Kordoba taldean pentsatzen hasi nintzen.

**Ondoren Pako Aiestaranen agurra iritsi zen, eta Badiolaren erabakia; Jose Ramon Eizmendi izan zen entrenatzaile denboraldia amaitu artean. Zer etorri zitzaizun burura?**

Ametsa iritsi eta betetzeko aukera izango nuela. Bilobei kontatzeko moduko ametsa. Oso gustura ari naiz, eta benetan eskertzekoa da Inaki Badiolari aukera hau eskaini izana. Ni errealezalea naiz umetarik, jokalarari eta entrenatzaile gisa realzalea. Infantiletatik hasi eta lehen talderaino maila guztietan aritu naiz lanean. Saria iritsi da, neurri batean, baina orain lan egin behar da amets hau ondo amaitzeko, Lehen Mailara igotzeko, alegia.

**Taldea Lehen Mailan ikusten duzu datorren denboraldian?**

Horretarako borrokatzen ari gara denak. Helburu horrekin heldu diogu erronka honi. Ikusiko da. Oraintxe buruan daukadan pentsamendu bakarra Castello da; Castello besterik ez.

**Zer esango diezu jokalariei Castellaren zelaira irten baino lehen?**

Orain arteko harremanari eta jarraitzaile eusteko, hobetzea badago, primeran, baina garrantzitsuen eustea da. Taldea mundiala da, orain arte erakutsitakoari eusten badiot, primeran.



# «Oraintxe buruan dudan pentsamendu bakarra Castello da»

**Kanpotik begirata egonkortasuna behar duen taldearen itxura du Realak. Hainbeste joan-etorri, arazo instituzionalak... Jokalariek behin eta berriro esan dute arazo guztietatik at lan egin nahi dutela baina, nola ikusten dituzu?**

Edozein lekutan lan egiteko lasaitasuna behar da. Lasaitasunik gabean, jokalarien parte-hartzea eta jarrera apartekoa izaten ari da. Gazteak dira oso, baina gauzak oso argi dituzte. Helburua zein den badakite eta odol hotza izaten ari dira.

**Taldea osatzeko Pep Marti eta Fran Merida gaztea iritsi dira azken astetan. Dagoeneko astebeite pasatxo daramazu beraiek lanean, nolako izaten ari da hauen egokitzea?**

Benetan ona. Jokalari onak dira, taldeari gehitzera datozen bi gizon eta dohai onak dituztenak. Jarrera bikaina erakusten ari dira zentzu guztitan, eta taldeak ere oso ondo onartu ditu. Lehen esan dudana bezala taldeak igotzearen helburua oso garbi dauka, eta hau gauzatzen laguntzera datorren oro ongi-etorria da. Datorrenak eta dagoenak badaki guztiok lan egin beharko dugula datorren urtean Lehen Mailan egoteko.

**Fitxaketak, baina, ez dira bere horretan geratuko. Bihar Alberto**

**Mogado gazteiztarra aurkeztuko dute, Zigic-en inguruko negoziatioak ere gaur bertan gauzatzeko dira, eta badirudi Carlos Villanueva punta-erdi ezker txiletarra ere Badiolaren helburuetako bat dela.**

Nik uste dut ziurtatu beharrekoa ezker hegaleko jokalaria dela. Aspalditik ezagutzen dugun kontua da. Nik uste hor dagoela behar handiena. Bestelako gehigarriak beti dira mesedegarriak, baina badakite ere ezker hegalean behar dugu lagunza.

**Villanueva bera izan al daiteke ezker hegalean aritzeko iritsi daiteken jokalar hori?**

Ez dakit. Ez dakit oso ziur ezker

hegalean jokatzen jokalaria te den. Badakit ezker delako, jokalaririk polita, baina aurrelariaren atzetik jokatzen gizona dela uste dut. Ezker, bai, baina ezker hegalean jokatzen dezakela ziurtatu beharko dugu.

**Aiestaranen agurra asteartean bertan eman zen, badirudi Francis Cagigao Arsenalako teknikaria izango dela bere ordezkoa. Nola bizi duzu egoera hau?**

Lehen aipatu dudan jokalariren jarraia hori berriro gorapatzu, gertatzen ari dena alde batera utzi behar dugula iruditzen zait. Gu gurera, igandeko partida irabaztera. Buruan, lehen esan bezela, Castello.

**EZKER HEGALEAN BEHARRIK HANDIENA**

Fitxaketan arloak ez du gehiegi kezkatzen entrenatzaile ikaztegiatarra. Gustura dago, iritsi direnekin, eta une honetan, garrantzitsuen «ezker hegalerako errefortzu bat» izango litzatekeela azpimarratu du.

Inaki Badiola presidenteak bere negoziatio planekin jarraitzen du. Aurrealdean jokatzen duen Carlos Villanueva izan daiteke gizon hori. Joan den urtean txileko ligako jokalaririk onena izendatu zuten, 22 urte ditu, eta Realera etortzekotan da. Zalantza handiena, Moskuko CSKA eta A Coruña-ko Deportivo-ko nahi duten jokalaririk onena, benetan ezker hegalerako jokalaririk onena den. «Hori ziurtatu beharko» dela azpimarratu du Eizmendik, horrela balitz, bere menpe izango duen hurrengo jokalaria izan liteke.

## Kirolari bai, baina neurrian



**» Kale kantoitik**

**Joxemi Saizar**

**U**sabal kiroldegiak boom-aren izan du ireki zenetik, duela bi urte eta piko. Hasierako kolpea izango zela uste zutenek oker zebiltzala ikusi dute denborarekin. 7.500 bazkide ditu, Tolosa eta beste 81 herriakoa! Gipuzkoako guztiak? Denbora honetan batek baino gehiagok galdetu dit harrituta ez al naizen bazkide. Denei berdin erantzuten diet: kiroldegia ondo dago, baina egiten ditudan kiroltarako, mendi edo bizikleta buelta egiteko, elurretan ibiltzeko, korri pixka bat egiteko edo palaz jokatzeko, ez dut kiroldegiren beharrik.

Honekin batera behin baino gehiagotan entzun dut zenbait kirolaririk ordu pila bat sartzen dituzela Usabalen, bertan bizi direla, etxeko dutxa ez dutela bi urte hauetan erabili, luzaketak, beroketak eta entrenamendu taulak besterik ez dituztela ahotan. Osasunarentzat (fisikoa eta burukoa) txarra izateaz gain, gehiegikeria horrek kiroldegia gainezka egotea eragiten du. Beharbada gehiegikeriak kontrolatzeko pertsonek bertan jarri beharko litzateke bertan. TAO bezalako txartelak bestela. Kirola osasunarentzat kaltegarria dela ere ez dut esango, norbait lesionatzen den bakoitzean lagun batek esaten duen bezala. Ez da beste muturreraino joan behar.

Gaiaz aldatuz, joan zen ostiralan beste musika ikuskizun apartaz gozatzeko aukera izan genuen Leidorren, gutxitan ikusten den horietakoa. Musika Eskolak ekitaldia sustatu zuen ikasleei prezio berezia eskainiz eta, horren ondorioz, entzule kopuru oso ona izan zen. Bestela, nola egongo zen Leidor? Erdi hutsa, seguraski. Zoritxarrez. Horrekin horrelako ekimenekin jarraitzea animatzen ditut. Gauean, beste lau musikari on izan ziren Fronton kafetegian, doan zen, baina lau katu geunden begira eta entzuten. Eskerrak Atila y los Unos-eko giro pixka bat jarri zuten.

**@ Eztabaida.** Eman zure iritzia TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN webgunearan bertan proposatzen zaizkizun gaian inguruan.  
[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)



Irudian, Tolosa okupazioa izazkundik. Marragorriak AHTren gurtzi gorabeherako bilibidea adierazten du. (A. ELIZABE)

# GERO ETA GERTUAGO

**AHT** Abiadura Handiko Trenaren obrak aurki hasiko dituzte Gipuzkoan; herritarrak ez dute informazio handirik; kezak, berri, handiak.

## ESTREZZA-NEREA URDUKU

Abiadura Handiko Trenaren obrak hasi dituzte, eta eskuak iden eragin handia izango du. Hainbat herririk hurbil behar du trenaren sentitu, bizi, entzun... Ezustean bezala etorri da trenaren aspaldian auzan izan badare.

Herritarren artean «informazio falta» da nahasmena, bai gertutik jasanago dutenen artean zein herritar urrunen artean ere. Tolosaldeko iagaroko dela jakina da, baina ez zehazki zein lekutik metroak gora, metroak beheara, noiz, noiz arte...

Informazio hau emateko Lurranek jarri dute martxan. Tolosaldeko AHT Gedindu El-karriana bere aldeko lanetan ari da informazio eskuratzeko abahinginak ematen. Abiadura Handiko Trenaren kontak baditu urte batzuk eta berri sinan dagoen zerbait bezala ikusi da, baina itxura harriaren hasi da obrak egiten hastarekin batera.

AHT Tolosaldeko hainbat herririk pasako da. Orain bitartean zerk erortzeki du. Alegatik, Montekua aldean, Tolosaldeko San Esteban auzotik, Hernialdetik, Anetzatik, Zuzarkidik, Adunatik...

**Udal batzen lana**  
Orain arte, Alega eta Anoeta dira AHT Tri buruzko herri guzdeketa egiten duten Tolosaldeko herri ba-

kionez, aldez, «edozein errepide-tan sortzen dena baino txikiagoa izango da eta», epinareta, beharrezko izango du lekuz kanaraz eta edikidiko neurriak jarzte erraza izango da.

Paisian integratzeaz, mota horietako lanean egiten dituen dizituzio eragina ahalik eta txikiena izan dadin, «kontuan hartu beharrok puntuak hauek dire: azken egituraz, maddak jakesi eta zahartzat lan-tatu». Hormigoko zutabe emal-oiak izango dituzten pasabideak atzietatik eskidungo dituztela dio Eusko Jaurlaritzak.

Gaineratu duenez, «bidaiariak eta merkantziak errepideak atera eta trenbidea eramatea posible izango da sare berriari esker eta, hornela, energia aurreratu da».

«AHT sartzeko beste azpiegitu-ak...»  
**Gipuzkoako zatiko sondeak jada hasi dira; Ordizia-Itsasondoa tunela erailiko dute lehendabizi**

«Batzetarako baino lur gutxiago» behar dela dio Eusko Jaurlaritzak. Eskerteroko autogista bat egitean, kilometro bakarko zirkulu bektaraz lur behar dira trenbide-ak, aldez, 3,5 (15-mko zabalera). «Euskoako porke naturalak eta ez du eraginik izango», Eusko Jaurlaritzak dioenez, Parke natura-lik alde batera utzita diseinatuta da, «eragirik jaso ez dezaten».

Egun, garrariozko dauden korridoreetatik iagaroko da azpiegitura, hornela, zuzenagoak izan daitez-

keen beste bide batzuen balizko eraginak salbestuta. Halaber, Gario Salak proposatutako Nafarroako loturak (Ezki-Itasoko hasita) «Aralar eta Aizkorri-ren ootasina bermatuko du erab-».

**Lana faseak antolatuta**  
80ko hamarkadaren amaieran, komunikazio-sistemei buruzko analitik «argi utzi zuen Euskadin hiriarreko distantzia erlatibetan gabezia handia dagoela».

Handik aurrera, garrario buzur Europak dinan politikak egin, hainbat ikereku burutu zituzten eta Tren Arkoko Euskoak 10 Plana sortu zuten. Berta, AHT erailitako hainbat aukera azaltzen ziren eta horiek azterfeta du dituzten gau egungo Eskal Y-aren trazaratik.

Bigarren faseari eztabaida dedia diote. proiektuaren definituzko aterazko proposamena, arlo abaku-ko adituek aztertzen zuten «azpiegitura modernoa, aurrerakoi, seguru, jasangarri eta ingurugirora errespetatuzko daena bertako behar-».

1999an, bertan, Euro-par batasunak lehentasunezko proiektuaren zerrenda sartu zuen Madrill-Gasteiz garrario sarean. Eusko Y-a sare horren barruan dago, berriz, azpiegitura horniduko agintza egiten duen Europ.

Ingurugirora zainkeraren eta jasangarritasunaren kien harremanetan hainbat ekarpenen bitartean, «proiektuak eskal gizar-tzarren beharrezkoaren habesa jaso da, eta erakunde eta gertutze,

ekonomia eta akademian munduko talde nagusien bidez adierazi du», dio Eusko Jaurlaritzak.

Hinguruen fosa finantziazioa da Espainian trenbide-azpiegiturak erailitako eskumena Madrillgo Gobernuak dauka, eta beraz, Sutaspen Ministerioari dagokio finantziazioa eta lanak egitea. Honetara, Eusko Jaurlaritzako Gario eta Herri Lan Salak Eusko Y-a finantziazioa korbenoski sinatu zuten eta 4.178 milioi euro inbertizio adertu zuten.

Eusko Jaurlaritzak Bergara-Iruñ, Donostia zatia erailiko du akordio horietan zehatu zuten-».

**Azkenik, proiektua guztuztea**  
Azken fasea proiektua guztuztea da, eta horretan daude. Abiadura Handiko Tren erailitako lanak 2006ko urrian hasi ziren, Arra-zua, Ubarredun eta Lagartiarren artean. Gipuzkoako zatiko sondeak jadanik hasi dira. Ordizia-Itsasondoa tunelaren bitartean dago lehendabizi. Hiriburuetarako geltokiak erailitako lanak aurrerago egongo dituzte.

**DEIALDIK**  
• **Gau.** Tolosaldeko Mañi Eroskitik abiatuta LAB sindikatuek delatua auto-karriana, AHTren kontra, 11.00etan AHT Gedindu Ekarlarantzen bidean berrikeriaren autokape-na Maestran.

• **Bihar.** Triangulon hasita AHTren kontrolko manifestazioa 12.30etan.

Abiadura Handiko Trena Tolosaldeko iagaroko da. Informazio handiegirik ez badago ere, ibilbidea orokorrean zehaztuta dago. Bestek beste, Zuzurki eta Tolosatik iagaroko da tren, hainbat herritarren baserri eta lursailen iraupena zalantzan jarri. Egitasmoa abian jarri zenetik, ezbai batean bizi dira Zuzurki Aunibar baserriko eta San Estebango bizilagun batzuk.

# «Etsita gaude, lur jota; duela urte batzuk urruti ikusten genuen, baina jada gainean dugu»

PEPI JAUREGI | Aunibar baserriaren jabea

## EE-NU

25 urte daramatzate elkarrekin bizitzen Zuzurki Aunibar baserriaren Itzi Mendizabalok eta Pepi Jauregik, Gorka eta Unai semeekin. «Inpunitziazioa da haren epea deklaratutako hiritik adierazko-rena, baserria galdutako eto duten ez baitaite oraindik.

**Noiz jakin zenuten trenaz?**  
Duela hiru inguru orainetik sar-tzen hasi ziren, eta orduan ikusi genuen zer baitaiteen ari zirela. Hainek neurriak egin hasi ziren, baina ordu arte gure gurean honen berririk.

**Noiz iagaroko da trenaz?**  
Zukia baserriaren eretik 20 me-troa joango da. Horretatik, zubi-».

**Orak hastean zer gertatuko da?**  
Dakigun gauza bakarra da, obrak hastean, bi urtez, hiru da, hauek irauten duten bitartean, zoinbe-».

# «Badirudi kaltetua naizelako nagoela aurka; baina niri ez zait aukera ona denik iruditzen»

IDOIA PELLEJERO | San Estebango auzokidea

## NU, E E

1999an joan ziren bizitzera Idoia Pellejero eta bere semearen den Itzi Golkoetxean San Esteban auzoan. Etxearen etorkitilik ibilbetea-».

**Noiz jakin zenuten AHT hemendik iagaroko zela?**  
Etxearen etorkitilik ibilbetea-».

**Noiz iagaroko zela?**  
Lehendabizi udaltzera joan gi-».

**Zer gertatuko litzateke lur eremu honetan?**  
Ez dakigu zehazki baina Hernial-».

**Zer da burun duzuna, zerk kezka izango du?**



Karteke dagoen tokian hasiko da tunela. (A. ELIZABE)

## Zer gertatuko da zehazki lur eremu honetan?

Ez dakigu. Nola gertatzen garen, zein aukera jasko ditugun... Ho-».

**Zer gertatuko da zehazki lur eremu honetan?**  
Ez dakigu. Nola gertatzen garen, zein aukera jasko ditugun... Ho-».

## nahi dugu: AHT gure baserririk 20 metro baino gutxiagora pasako dela badakigu, baina ez dakigu be-».

**Orak noiz hasiko direla diole?**  
Ez dakigu. Urtero gauza berdina esaten dituzte, hurrengo urtean izango dela. Oraindik aurre-».

**Orak noiz hasiko direla diole?**  
Ez dakigu. Urtero gauza berdina esaten dituzte, hurrengo urtean izango dela. Oraindik aurre-».

**Bideruak josten ari al zarete?**  
Orain Zuzurkik taldearekin bat el-».

**Zer gertatuko da zehazki lur eremu honetan?**  
Ez dakigu. Nola gertatzen garen, zein aukera jasko ditugun... Ho-».

## Jakin genuen, ezusteko handia izan zuten, baina oraindik bederatzit urte igarro dira, eta erabilbitartean jakin behar izan dugu.

**Egingo ez zeneren esperantzak ba al zuten?**  
Orain dela gutxi arte usie gemen ez da egongo. Baina izugarriko aldateta eman zen Albaro Ama-».

**Zer da sentitzen duzuna?**  
Jakin genuenen, ezusteko handia izan zuten, baina oraindik bederatzit urte igarro dira, eta erabilbitartean jakin behar izan dugu.

**Egingo ez zeneren esperantzak ba al zuten?**  
Orain dela gutxi arte usie gemen ez da egongo. Baina izugarriko aldateta eman zen Albaro Ama-».

**Zer da sentitzen duzuna?**  
Jakin genuenen, ezusteko handia izan zuten, baina oraindik bederatzit urte igarro dira, eta erabilbitartean jakin behar izan dugu.

**Egingo ez zeneren esperantzak ba al zuten?**  
Orain dela gutxi arte usie gemen ez da egongo. Baina izugarriko aldateta eman zen Albaro Ama-».

**Zer da sentitzen duzuna?**  
Jakin genuenen, ezusteko handia izan zuten, baina oraindik bederatzit urte igarro dira, eta erabilbitartean jakin behar izan dugu.

**Egingo ez zeneren esperantzak ba al zuten?**  
Orain dela gutxi arte usie gemen ez da egongo. Baina izugarriko aldateta eman zen Albaro Ama-».

**Zer da sentitzen duzuna?**  
Jakin genuenen, ezusteko handia izan zuten, baina oraindik bederatzit urte igarro dira, eta erabilbitartean jakin behar izan dugu.

**Egingo ez zeneren esperantzak ba al zuten?**  
Orain dela gutxi arte usie gemen ez da egongo. Baina izugarriko aldateta eman zen Albaro Ama-».

**Zer da sentitzen duzuna?**  
Jakin genuenen, ezusteko handia izan zuten, baina oraindik bederatzit urte igarro dira, eta erabilbitartean jakin behar izan dugu.

**Egingo ez zeneren esperantzak ba al zuten?**  
Orain dela gutxi arte usie gemen ez da egongo. Baina izugarriko aldateta eman zen Albaro Ama-».

**Zer da sentitzen duzuna?**  
Jakin genuenen, ezusteko handia izan zuten, baina oraindik bederatzit urte igarro dira, eta erabilbitartean jakin behar izan dugu.

**Egingo ez zeneren esperantzak ba al zuten?**  
Orain dela gutxi arte usie gemen ez da egongo. Baina izugarriko aldateta eman zen Albaro Ama-».

**Zer da sentitzen duzuna?**  
Jakin genuenen, ezusteko handia izan zuten, baina oraindik bederatzit urte igarro dira, eta erabilbitartean jakin behar izan dugu.

**Egingo ez zeneren esperantzak ba al zuten?**  
Orain dela gutxi arte usie gemen ez da egongo. Baina izugarriko aldateta eman zen Albaro Ama-».

**Zer da sentitzen duzuna?**  
Jakin genuenen, ezusteko handia izan zuten, baina oraindik bederatzit urte igarro dira, eta erabilbitartean jakin behar izan dugu.

## rudenez, harrobi bat ere egin be-».

**Udalek atera dauden erri bitan agertzen denez, Zuzurki Udala-».**

**Udalek atera dauden erri bitan agertzen denez, Zuzurki Udala-».**

**Udalek atera dauden erri bitan agertzen denez, Zuzurki Udala-».**

**Udalek atera dauden erri bitan agertzen denez, Zuzurki Udala-».**

**Udalek atera dauden erri bitan agertzen denez, Zuzurki Udala-».**

**Udalek atera dauden erri bitan agertzen denez, Zuzurki Udala-».**

**Udalek atera dauden erri bitan agertzen denez, Zuzurki Udala-».**

**Udalek atera dauden erri bitan agertzen denez, Zuzurki Udala-».**

**Udalek atera dauden erri bitan agertzen denez, Zuzurki Udala-».**

**Udalek atera dauden erri bitan agertzen denez, Zuzurki Udala-».**

**Udalek atera dauden erri bitan agertzen denez, Zuzurki Udala-».**

**Udalek atera dauden erri bitan agertzen denez, Zuzurki Udala-».**

**Udalek atera dauden erri bitan agertzen denez, Zuzurki Udala-».**

**Udalek atera dauden erri bitan agertzen denez, Zuzurki Udala-».**

**Udalek atera dauden erri bitan agertzen denez, Zuzurki Udala-».**

**Udalek atera dauden erri bitan agertzen denez, Zuzurki Udala-».**

**Udalek atera dauden erri bitan agertzen denez, Zuzurki Udala-».**

**Udalek atera dauden erri bitan agertzen denez, Zuzurki Udala-».**

**Udalek atera dauden erri bitan agertzen denez, Zuzurki Udala-».**

**Udalek atera dauden erri bitan agertzen denez, Zuzurki Udala-».**

**Udalek atera dauden erri bitan agertzen denez, Zuzurki Udala-».**

**Udalek atera dauden erri bitan agertzen denez, Zuzurki Udala-».**

**Udalek atera dauden erri bitan agertzen denez, Zuzurki Udala-».**

**Udalek atera dauden erri bitan agertzen denez, Zuzurki Udala-».**

**Udalek atera dauden erri bitan agertzen denez, Zuzurki Udala-».**

## Laburrak

### Eskolako ikasleek lhoteen hasiera ospatuko dute gaur

**LEITZA** ● Eskolako ikasleek 2008ko Leitzako lhoteen hasiera ospatuko dute gaur. 15:15ean bilduko dira eskolan eta kalejirari ekingo diote. Herritik barrena plazara iritsiko dira eta bertan, 16:00ak inguruan, ikasleek prestatuturik dituzten emaldiak eskainiko dituzte. Guraso eta herritarrei bertara agertzeko deia luzatu die eskolako arduradunek, jaiarekin bat egiteko.

### Oinkari dantza taldeko zozketan 2.838a saritua

**VILLABONA** ● Urtarrilaren 20an Oinkari dantza taldearen egutegiaren zozketa egin zen. ONCEko zozketaren arabera, 15 lagunentzat Asteasuko Sarasola sagardotegian afari bat eta Gabonetako saski eder bat irabazi dituen egutegiaren zenbakia ondokoa da: 2.838a. Irabazlea Oinkariarekin harremanetan jarri daiteke edo 660 139380 zenbakira deitu.

### Kaxkagor elkartearen ekitaldiak gaurtik hasita

**GIZARTEA** ● Kaxkagor elkarteak antolatuta, gaur 18:00etan Alkizako gazteekin Asteasuko rokodromoan eskalada ikastaroa egongo da. Bihar berriz, Adunako gazteekin Belkoainera mendi buelta egingo dute, 11:00etatik aurrera. Bazkaria emateko eskatu dute antolatzaileek. Astelehenean azkenik, Larraulen Hockey partida antolatuko dute 11:00etatik aurrera.

### Urrezko Aizkolarien lehia Amazabal pilotalekuan

**LEITZA** ● Urrezko Aizkolarien Binalakako Txapelketaren final-laurdenetako bigarren jardunaldiko norgehiagoka bat jokatu da bihar Leitzan. 19:00etan Amazabal pilotalekuan hasiko da jaialdia eta Nazabal-Mugerza II.a, Mindegia-Rekondo aurka lehiatuko dira. Mindegia lesioengatik ezin izango balu parte hartu, Fausto Mugerzak ordezkatuko luke.

### Euskadiko Kluben Txapelketako partidak

**PILOTA** ● Bidegoiango pilotalekuan Aurrera-Saiazkoen bi pilota partidak izango dira gaur 19:30ean. Lehena banakako kadeteena izango da eta bigarrena jubenilena. Bihar berriz, 10:30etik aurrera, Tolosako Beotibarren seniorren bi partidak eta 22 urte azpikoen partidak jokatu dira. Bi herrietako lehiak Euskadiko Kluben Txapelketakoak dira.

## Eneko Galarraga Godoi atxilotu du Frantziako Poliziak Urruñan

**Villabona** » Atzo Baionako komisaldegira eraman zuten atxilotu ondoren eta gaur «Pau-era eramango dute».

Iturri berdinek azaldu zuten, atzo «Baionako (Lapurdi) komisaldegira eraman zuten atxilotu ondoren, bertatik amari deitzeko aukera izan zuten».

### «Gaur Pau-eko epaitegira»

Familiak jakinarazi zuten, Eneko Galarraga ezin izan zuten ikusi atzo, nahiz eta abokatuak berarekin egoteko aukera izan zuten. «Arropa eta janaria sartu zion eta lasai zegoela esan zigun abokatuak». Gaur berriz Pau-ra (Frantzia) eramango dutela esan zuten, «bertan epailearen aurretik pasa eta Tolosako (Frantzia) espetxera eramango dute, euroagindua 3 aste behar omen ditu eta bertan



Eneko Galarraga gaztea. HITZA

egongo da Espainiaratu arteko tar-tean». Askatasunak «euskal iheslari politikoei bizi duten jazarpena» salatu du.

## 'Egin' eta Orain SAko espetxeratuekiko babesa

### 'Egin auzia'

Eskualdeetako hainbat kazetarik agiriarekin bat egin dute euren izenean atxikimendua emanaz.



Herenegun komunikazio alorreko langileak elkartu ziren. GARI BERASALUZE

### A. IMAZ

Egin eta Orain SAko langileak izandakoekin elkartasuna adierazteko eta 19/98 auziaren epaia dela-eta «hamar urtetik hona izan den komunikabideen aurkako jazarpena salatze» komunikazioaren alorreko 300 bat langileak agiri bat sinatu dute «bidegabekeriak» salatuz. Agiria aurkezteko eta espetxeratuei elkartasuna adierazteko elkarretaratzea egin zuten herenegun Andoainan (Gipuzkoa).

### Eskualdeetan babesa

Agiriarekin bat egin dutenen artean, bi eskualdeetako komunikazio alorreko hainbat langile aurkitzen

dira, horien artean TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO langileak.

### «Ezin dugu isilik geratu»

Josu Juaristi Gararen zuzendaria eta Laura Mintegi Euskal Pen Klubaren lehendakariak irakurri zuten agiria; «komunikazioaren

munduko eragile eta langileak ezin dugu isilik geratu oinarrizko eskubideen zanpaketa aurrean». «Ezin gara isilik geratu», horiek izan ziren bi kazetarien irakurraldian behin eta berriz nabarmendu ziren hitzak. Agiria zerrenda osorik irakurtzeko [www.berria.info](http://www.berria.info) sartu behar da.



Ibarrako Zikloturista Taldeko kideak atzo prentsaurrekoan. ASIER IMAZ

## EHNA egitera deitu dituzte herritarrak Zikloturista Taldekoek

**Ibarra** » Zikloturistek EHNAren erabilpena aldarrikatu zuten, euskal nortasuna praktikan jartzeko modu gisara.

### ASIER IMAZ

Ibarrako Zikloturista Taldeko kideek ibar guztiei deialdia luzatu die otsailaren 16an, larunbatean, herriko udaltxera ager daitezen EHNA tramitatzera, bertan izango baita horretarako aukera.

### «Euskal nortasuna praktikara»

Zikloturista Taldeko kideak bizikleta eta guzti agertu ziren prentsaurrean atzokoan. «Txirrindularitza maite dugu, gustuko dugu euskal errepideetan barrena baztutan manto, bestetan bixi, lagunarteaz gozatzea» aipatu zuten sarriera modura.

Tourra ere gogoan izan dute, bertan bizitzen den euskal giroaren irakurketa egiteko asmoz: «uztaileko beroarekin batera Tourra iristean, hortxe abiatzen gara Pirinioetara euskal txirrindulariak

animatzera; milaka eta milaka euskaltzale ikurrina eskuan, garraxika euskal txirrindulariei bultzada emanez. Argi eta garbi nabari daiteke ezberdinak gara: gu ez gara ez espainiar ez frantziar sentitzen. Zale guztiek mundu guztiari jakinarazten diegu nazio bat gara, Euskal Herria».

Prentsaurrera euskal herritar gisara aurkeztu ziren Ibarrako Zikloturista Taldeko kideak, otsailaren 16an EHNA tramitatzera joateko deialdia eginaz. «Ibartar guztiak dei egiten diegu, udaltxera ager daitezen iragan, EHNAren bidez, gure euskal nortasuna praktikara eraman baitezakegu».

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Zaintzailea.** Etxeko lanak egin eta bi haur zaintzeko pertsona bat behar da. 656 76 64 39.

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona bat behar da. 656 41 68 08.



**E Elkarrizketa**

**OINATZ BENGOETXEA** ▶ Pilotaria

# «Partida azkarra izango da, hasieratik denek indartsu emango diogu pilotari»

**Leitza** ▶ Behatz batekin arazoak izan ditu azkenaldian baina jokatzeko moduan izango da leitzarra. Ruizekin ariko da bihar Gonzalez-Barriola bikotearen aurka.

**IMANOL GARCIA**

Oinatz Bengoetxeak (Leitza, 1984) biharko Binakako Pilota Txapelketako partida babes berezi batekin jokatu du, behatz bat hautsita baitu.

**Nola joan zen pilota aukeraketa?**

Besteenak bote handikoak eta partetik irteera handiko pilotak dira, errebotera aise sartzeko modukoak. Gureak pixka bat baxuagoak dira eta ukitu gehiagokoak. Baina bakoitzak bere pilotak aukeratzeko dituzte.

**Nolako partida espero duzu?**

Nik uste dut azkarra izango dela. Partida gogorra izan daiteke, baina gehienbat azkarra. Denak hasiko gara pilotari indartsu ematen.

**Nola zaudete zu eta Ruiz partidarako?**

Ongi gaude. Azken partida ona egin genuen Titin eta Laskurainen aurka eta egia esan, animoekin heldu gara partida honetarako. Hala ere, ez gaude ezta gure hoberenean ere. Lehengoan biek pixka bat

ukituta bukatu genuen. Nik behatza hautsita daukat eta Ruizek eskuina pixka bat ikututa, eta beraz ez gara ehuneko ehunean aterako, baina espero dugu partida ona egitea eta ea posible dugun irabaztea. **Pilota aukeraketan eskuak probatu zenuzuten eta gustura ateraz zineten.**


Bai, nire aldetik uste baino hobe dut behatza. Babes berezi batekin jokatu beharko dut, hori bai, baina min handia ez dit ematen behintzat eta proba nahiko positiboa izan zen.

**Finalerdietara pasatzeko zer aukera dituzte?**

Oraindik ezin da izan. Hirutik bi partida irabazi ditugu eta puntuak gehitzen joan behar dugu, oraindik asko gelditzen delako. Beste bost partida falta dira eta oraindik gauza asko ezin dira esan. Memetoz hirutik bi irabazi ditugu eta larunbatean [bihar] irabazten badugu pauso handia emango genuke. Zaila izango da, eta irabazi edo galdu arren, aurrera begira segitu beharko dugu.

**Ruizekin zer moduz moldatzen zara?**

Hirugarren urtez jarraian jokatzeko moduan dugu eta ongi moldatzen gara, kantxan bertan eta kanpoan ere. Dakigun guztia jokatzeko dugun bikote ona osatzen dugu eta horretan saiatzen gara.



HITZA

**Entrenamenduak batera egiten dituzte?**

Orain txapelketan ez dugu batera asko entrenatu behar izaten, partida batetik bestera atsedena hartzea oso garrantzitsua izaten da. Horregatik ez dugu asko entrenatzen eta, gainera, erdi kili-kolo gaudenez...

**Nola ikusten dituzu Gonzalez eta Barriola?**

Orain arteko hiru partidak irabazi

dituztenak beraiek izan dira eta, egia esan, biak memento oso onean daude. Partida oso zaila izango da irabazteko, moral handiarekin daudelako, baina ea zer gertatzen den.

**Nola jokatu behar zaie?**

Ez da erraza izaten hori esatea. Ez daukate zulo handirik. Pilotakada guztiak ahal den hoberen jotzen, ahal den zailena jartzen besteei pilota eta ahal denean, eta tantoa

egin ahal denean, egitea. Ez dago truko berezirik. Batzuetan pentsatzen duzu modu batera jokatu behar diozula, baina gero ez zaizu ateratzen. Egun guztiak ezberdina izaten dira eta ez da erraza izaten.

**Nolako txapelketa egiten ari zarete?**

Ongi, gustura. Lehendabiziko partida galdu egin genuen, baina beste biak irabazi egin ditugu eta, egia esan, jokoz gero eta hobe jokatzeko ari gara. Espero dugu ere bihar partida ona egitea eta ea puntua borrokatzerik badugun.

**Eta orokorrean, nola doa txapelketa?**

Agian partidak ez dira oso onak izaten ari orain arte, baina nik uste normala dela, asko falta da txapelketan eta partida hobeak ikusiko dira.

**Ezustekorik ikusi duzu?**

Beti dago ezustekoren bat, baina garbi dago denek asko jokatzeko dutela eta egun ona edo txarra duenak edozeineri irabazteko edo galtzeko aukera dutela.

**Pilotari asko ari zarete arazo fisikoak izaten.**

Horrela izaten da. Txapelketetan daukagun guztia ematera joaten gara eta normala izaten da. Pilotak ere gogorrak izaten dira eta lesioak ematen dira. Aurten hala tokatzen ari da memetoz, baina ez dut uste deusengatik denik, zorte kontua da gehiago.

**Finalera zein bi bikote iritsiko dira?**

Oraindik ez dago deus esaterik, asko falta baita finalerako. Aurreagorako utzi beharko dugu iragarpen hori...

## Rojo anaiak Munduko proban

**Tolosa** ▶ Junior mailako Munduko Txapelketan parte hartuko dute Polonian datorren otsailaren 3tik 10era.

**ERREDAKZIOA**

Ioseba eta Imanol Rojo Iraupeneko Eskiko Munduko Txapelketara doaz junior mailan. Espainiako Selekzioko partaideak dira eta, Udan hasita, hileroko kontzentrazioak izan dituzte Europan zehar.

Bide batez, Europako Kopako zenbait probetan parte hartu dute: Abenduan Formazza (Italia) eta

St. Ulrich am Pillerseen (Austria) eta Urtarrilean Oberstdorf (Alemania) eta Klosters (Suiza).

**Espainiako txapeldunak**

Etxean egoteko aukera izan dutenean, Espainia mailako probetan parte hartu dute eta beti garaipena lortu dute, beraien mailan: pasaden abenduan Candanchun eta Mayencos Trofeoan. Urtarrilean San Joan de L'Erm-en izandako Distantzia Luzeko probetan Espainiako txapeldunak izan dira. Ioseba junior mailan eta Imanol kadete mailan.

Hainbeste hilaibetako entrenamendua eta disziplinak hain

emaitza onak lortzera bideratu die. Amets bat da eta, bide batez, gogorra etxetik urrun ibili behar dutelako tarte luzez. Urte hasierako goizean Uzturreko puntan izan ziren baina arratsalderako abiatu ziren eta hilaibete eta erdi etxeratu gabe ibiliko dira, beste txapelketatan.

**Poloniara joango dira**

Esfortzu honek bere sari berezia izan du. Izan ere, Poloniako Szczyrk-Wisla herrian Otsailaren 3tik 10era antolatuta dituzten Junior mailako Munduko Txapelketan parte hartzeko aukeratuak izan dira.

## Elkarretaratzeak gaur, Etxeretek deituta

**Politika** ▶ «Euskal presoek eskubideen alde» elkartuko dira bi eskualdeetako hainbat herritan.

**ERREDAKZIOA**

Etxeretek, Euskal errepresaliatu politikoen senitartekoen, hileroko azken ostiralero egin ohi duen bezala, elkarretaratzeetara deitu ditu herritarrek Tolosaldeko eta Leitzaldeko hainbat herritan «euskal presoek eskubideen alde».

**» ELKARRETARATZEAK**

**Tolosaldea eta Leitzaldea**

- Tolosa. 19:30.
- Ibarra. 19:30.
- Alegia. 19:30.
- Amezketa. 19:30.
- Anoeta. 19:30.
- Lizartza. 20:00.
- Ikaztegieta. 20:00.
- Zizurkil. 20:00.
- Villabona. 20:00.
- Asteasu. 20:00.
- Aduna. 20:00.
- Leitza. 20:00.

**HAU GAZTERIA...!**

Gipuzkoan 50.000 gaztek baino gehiagok lanpostu bat dute

**JAKINA**





**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko ideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

- **Ibarra.** *Barne baretik, Ibarra* izenburupean Ibarrari buruzko DVDa jarri berri du salgai dago Benito Izagirre kultur etxean eta udal-letxean 6 eurotan. Bertan, herriko ohitura, txoko, bizilagun, eraikin, auzo eta mendi ezberdinak ikus daitezke irudien bidez.
- **Tolosa.** AHTren kontrako auto karabana egingo dute 10:00etan. Maxi Eroskitik aterako dira. LAB sindikatuak antolatuta.
- **Tolosa.** La Jara Extremadurako Zentroak txerria hilko du gaur. Larunbatean eta igandean bazkariak izango dira 12 eurotan. Izen-ematea, 675 707619 telefono zenbakian.
- **Tolosa.** Judith Rumanoskik Hungariako ijito kontu eta ipuin kontatuko ditu Haur Liburutegian 18:00etan, 5-12 urteko haurrentzat. Kaldereroz jantzita joatea eskatzen dute. Kamiseta zozketatuko dute.
- **Villabona.** Loatzo Tiro Elkarteak bazkideei jakinarazten zaie otsailaren 9an, 14:00tik aurrera, ospatuko den Ehiza Txiki Txapelketarako izen-ematea Eizmendi armategian egin behar dela.

### Jaiak

- **Irura.** Kaldereroako Anoetako Herriko Plazan elkartuko dira 18:00tan eta herriko kaleak zeharkatu ondoren, Iruran sartuko dira zubi haunditik. Irurako Austineneko Plazako iturrian (zubiaren ondoan) kalderero gehiago gehituko zaizkio teldeari eta Irurako kaleak alaituz.
- **Lizartza.** Mozorro festa 14:15ean eskolan eta ondoren kalejira herriko kaleetan zehar.
- **Zizurkil.** Pedro Mari Otaño eskolatik 15:15ean aterako da Kalderero konpartsa, kalez kale ibili, 16:15ean Joxe Arregi plazara iritsi eta merienda egingo dute.

### Zinema

- **Tolosa.** *American gangster* filma emango dute asteburuan Leidor aretoan: gaur eta bihar 19:30ean eta 22:30ean, etzi 19:30ean eta astelenean 20:30ean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.
- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunkizunik.



## Gaur Inauterietako kontzertua

**TOLOSA** ■ Inauteri usaina nabaria da dagoeneko eskualdean eta, bereziki, Tolosan. Dagoeneko balkoi batzuk apaindu dituzte eta entseguekin buru-belarri dabilta talde ezberdinak. Inauteri doinuak ere prestatzen ari dira herriko musika talde eta txarangak. Gaur doinu hauekin gozatze-ko aukera izango da, Udal Musika eskolako ikasleek Inauteri kontzertua eskainiko baitute, 20:00etatik aurrera eskolako aretoan. Miguel Angel Morenoren zuzendaritzapean Sarriegiren Colmeneroren eta herri abestiak eskainiko dituzte. Emanaldiaren lehen zatian, kamarako banda ariko da; ondoren, honi ikasleen bandak lagunduko dio eta azken zatian bandak eta koroa elkarrekin ariko dira. Kontzertua Flauta, oboea, klarineta,

saxofoia, tronpetta, tronboia, bonbardinoa, tuba eta perkusioa instrumentuekin osatuko dute musikariak. Udal eskolatik herriar guztiei deialdia luzatu diete kontzertuaz gozatzera azal daitezten. HITZA

## A Agurrak



### Urte askoan!

Astelenean Oihanek 3 urte eta gaur Ainhitzek 6. Muxu potoloak Mikelen partetik.

hitza ren eskutik

**G PUNTUA**  
IPUZKOAKO BERTSOLARI  
TXAPELKETA 2007

**Finaleko DVDa**

Finaleko bertsaldi hautatuak



Hitzaren harpidedunentzako eskaintza berezia **6 €**

Deitu: **902-82 02 01**



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

hitza